



2023UDOS0011

Andoingo Udala

**Akta:Osoko Udalbatza**  
APARTEKO BILKURA: 2023/07/06**Acta: Pleno Municipal**  
SESIÓN EXTRAORDINARIA: 06/07/2023**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:****Alkatea / La Alcaldesa** Andoni Alvarez Lete**Zinegotziak: / Concejales:****EH-Bildu**  
Marta Lasa Goñi  
Xabier Fondón Pajares  
Garazi Usandizaga Zubiria  
Iosu Mateo Torrillos  
Haizea Barandiaran Zubillaga  
Diego Barrasa Ruiz  
Larraitz Arriola Larrarte**PSE-EE**  
Maider Lainez Lazcoz  
José Luis Verdasco Gutierrez  
Ascensión Parrón Peguero  
Aritz Alkain López  
María Belén Moreno Méndez**EAJ-PNV** M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández**Elkarrekin Podemos** Jose Mari Iparragirre Balda

|               |                   |
|---------------|-------------------|
| Akta Zenbakia | <b>0000011</b>    |
| Eguna         | <b>2023/07/06</b> |
| Hasiera       | 19.00             |
| Amaiera       | 19.18             |

**Idazkaria:**

Unai Rekondo Pérez

**Kontuhartzailea**Myriam Lizaso  
Arruabarrena**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

**Ez da bertaratu eta adierazi du: / No asiste y se excusa:**

Imanol Goenaga Egibar eta Idoia Mikelez Alonso (EAJ/PNV)

r

**Gai Zerrenda:**

- Talde politikoen eraketaren eta horien kideen eta bozeramaileen berri ematea.
- Dedikazioa osoa eskatzen duten karguak zehaztea, baita dedikazio partziala eta hauen gutxieneko dedikaziorako erregimena ere.
- Kide-anitzeko organoetan Udalbatzako ordezkarien izendapena.
- 2023ko ekainaren 22ko 1350/2023 zenbakiko ebazpenaren berri ematea, zeinaren bidez udal batzorde informatzaileen lehendakaritza utzi eta lehendakariak izendatzen diren.
- 2023ko ekainaren 22ko 1354/2023 zenbakiko ebazpenaren berri ematea, non Toki Gobernu Batzarreko kideak eta Alkateordeak izendatzen diren.

**Orden del Día:**

- Dar cuenta de la constitución de los Grupos Políticos y de sus integrantes y Portavoces.
- Determinación de los cargos que conllevarán dedicación exclusiva, así como los cargos con dedicación parcial y su régimen de dedicación mínima.
- Nombramiento de representantes de la corporación en órganos colegiados.
- Dar cuenta de la resolución 1350/2023, de 22 de junio de 2023, por la que delega la presidencia efectiva y se nombran presidentes/as de las comisiones informativas municipales.
- Dar cuenta de la resolución 1354/2023, de 26 de junio de 2023, sobre nombramiento de los miembros de la Junta de Gobierno Local y Tenientes de Alcalde.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.**

---

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on eta ongi etorri hona etorri zareten zinegotziei eta etxetik ezohiko udalbatza hau jarraitzen ari zareten herritarrei. Gaur, 2023ko uztailaren seian ezohiko udalbatza bat egingo dugu, eraketa udalbatza deitzen zaiona. Besterik gabe, hasiera emango diogu udalbatza honi.”

**1. Talde politikoen eraketaren eta horien kideen eta bozeramaileen berri ematea.**

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Taldea bakoitzeko kideak banan-banan ez ditut zerrendatuko, baina bai esango ditut nortzuk izango diren bozeramaileak.

“EH Bilduren bozeramailea Marta Lasa Goñi andrea. PSE-EErena, Mainer Lainez andrea, EAJ-PNVrena Imanol Goenaga jauna eta Elkarrekin Podemosena, Pepe Iparragirre jauna izango dira.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

**2. Dedikazioa osoa eskatzen duten karguak zehaztea, baita dedikazio partziala eta hauen gutxiengo dedikaziorako erregimena ere.**

Idazkari jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gai honetan, onartutzat eman dira batzorde informatzaileen osaketa eta udal talde politikoetako kideak era izendatu dira. Formalki batzorde informatzailetik pasatu ez direnez, bigarren eta hirugarren puntua, gaiak bozkatu aurretik, berretsi beharko litzateke gai zerrendan sartzea.

“Decía que en el punto segundo y tercero, al haber entendido la corporación, que ya estaban constituidas las comisiones y a su vez se han nombrado los representantes de cada grupo político en cada comisión, formalmente antes de entrar en el fondo del asunto y votar el propio asunto, ha de ratificarse en su inclusión en el orden del día.”

Jarraian, Alkate jaunak, gaia presazko izaeraz gai zerrendan sartzeko proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

“Puntua sartzea onartuta, dedikazio osoa izango dutenak, nahiz eta proposamenean ez den agertzen, lehenengoa alkate izango litzateke, %100 dedikazioarekin, eta udalhitzeko 21. mailan. Dedikazioa osoa izango duena ere, oposizioko lehenengo indarra, udal talde nagusia, hau da Alderdi Sozialista, eta bere zinegotziak %100ean egongo litzateke udalhitzeko 20. mailarekin.

“Dedikazio partziala dagokienez, Lehenen Alkateordeak, Hezkuntza eta Kultura eta Enbako zinegotzi ahaldunak %70eko dedikazioa izango du udalhitzeko 20. mailarekin.

“Bigarren Alkateordea, Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza eta Zerbitzuetako zinegotzi ahaldunak %50eko dedikazioa izango du udalhitzeko 20. mailarekin.

“Hirugarren Alkateordeak, Gizarte-Zerbitzuak eta Emakume eta Gizonen Berdintasuneko zinegotzi ahaldunak %45eko dedikazioa izango du, udalhitzeko 20. mailarekin.

“Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landa Guneko zinegotzia ahaldunak %36ko dedikazioa izango du, udalhitzeko 20. mailarekin.

“Horrez gain, EH Bildu talde politikoko zinegotzi batek %40ko dedikazioa izango du Udalhitzeko 20. Mailarekin eta EAJ PNV udal taldeko zinegotzi batek ehuneko %52ko dedikazioa izango du Udalhitzeko 20. mailarekin.”

Jarraian, Mainer Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi. Muy buenas tardes a todas y a todos. Como no hemos tenido información al

respecto, salvo el envío de la propuesta de alcaldía, si teníamos dos dudas. Por un lado, nos ha sorprendido que haya un concejal de EH Bildu que tenga un 40% sin ninguna función o responsabilidad en cuanto a presidencias de departamentos, y queremos que nos explique el porque.

“Tampoco vemos reflejado al concejal de Elkarrekin Podemos en las dedicaciones, entonces tampoco sabemos muy bien cómo va a estar asignado, y bueno pues un poco para que nos conteste, por favor, a las dos cuestiones. Eskerrik asko.”

Jarraian, alkate jaunak hartu du hitza, honakoa adierazteko:

“Elkarrekin Podemoseko zinegotziak hobeto adieraziko dizu zergatik ez duen liberazioa, hori alde batetik, bestetik, EH Bilduko zinegotziari buruz egiten didazun aipamenari erantzunez, guk bi kideko lantaldeak egin ditugu, EH Bilduk batzorde bakoitzean bi pertsona ditugu, nahiz eta batzordeburua bat izango den, hori dela eta, %40ko dedikazioa izango duen pertsona hori, nahiz eta batzordeburua ez izan, bi departamentuetan egingo du lana, horregatik du %40ko dedikazioa.”

Jarraian, Iparraguirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“En mi caso he preferido cobrar por dietas y asistencias en lugar de tener una dedicación.”

Berriro ere, Lainez andreak hartu du hitza, honakoa esateko.”

“Baina, ulertzen dut kasua. Entiendo que entonces, en ese caso habría que hacer un escrito indicándolo, para que quede constancia. Normalmente suele ser así. Hay que dejar registrados.”

Jarraian, Iparraguirre jaunak, erantzuten du:

“Yo ya lo comunique a Secretaría, No sé si se os ha hecho llegar, pero yo por lo menos ya lo comuniqué.”

Ikusita apirilaren 2ko Toki Jaurpideko Oinarri buruzko 7/85 Legeak 75. artikuluan; Euskadiko Toki Erakunde buruzko, apirilaren 7ko, 2/2006 Legeak 32 eta 33. artikuluetan eta Udaleko Araudi Organikoak 30. artikuluan ezartzen duena.

Kontuan izanik Udaleko alderdi politikoei hasieratik udaleko zereginak egitea beharrezkoa dutela.

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

**Lehena.**- Ezartzea, honako kargu hauek izango direla beren eginkizunak erabateko dedikazioan edo zatikako dedikazioan beteko dituztenak:

Erabateko dedikazioa:

— Andoni Álvarez Lete, Alkatea, Udalhitzeko 21. mailari dagokion ordainsariarekin.

— D.Aritz Alkain López, Grupo Municipal Socialistas de Andoain-Andoaingo Sozialistak (PSE-EE) udal taldeko oposizio zinegotzia, Udalhitzeko 20. mailari dagokion ordainsariarekin.

Zatikako dedikazioarekin:

-Marta Lasa Goñi and.a, 1. Alkateordea eta Hezkuntza eta Kultura eta ENBAko zinegotzi ahduna, %70ko dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila.

-Xabier Fondón Pajares jna., 2. Alkateordea eta Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza eta Zerbitzuetako zinegotzi ahduna, %50ko dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila.

-Haizea Barandiaran Zubillaga and.a, 3. Alkateordea eta Gizarte Zerbitzuak eta Emakume eta Berdintasuneko zinegotzi ahduna, %45ko dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila

-Garazi Usandizaga Zubiria and.a, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko zinegotzi ahduna, %36ko dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila.

-Diego Barrasa Ruiz jna., EH Bildu talde politikoko zinegotzia, %40ko dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila.

-Sagrario Ruiz Fernández and.a, EAJ-PNV oposizio taldeko zinegotzia %52 dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila.

**Bigarrena.**- Erabateko udal dedikazioa kasuan ordainsari horiek jasotzea bateraezina da Herri Administrazioen eta horien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuen kargurako beste ordainsariarekin, eta baita ere beste jardueren garapenarekin. Toki Erakundeetan dedikazio partziala duten



kideen kasuan, ordainsari horiek jaso ahal izango dituzte, betiere jardun hori Administrazioan duten lanalditik kanpo betetzen badute. Hori guztia Herri Administrazioen Zerbitzurako Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Lege hori garatzen duen apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau 2023.06.17 datan, hau barne, indarrean sartuko da. Grupo Municipal Socialistas de Andoaín-Andoaingo Sozialistak (PSE-EE) udal taldeko oposizioko zinegotziaren kasuan, eraginak 2023ko uztailaren 6tik izango dira, egun hau barne.

**Laugarrena.**- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta udal iragarki tauletan.

### 3. Kide-anitzeko organoetan Udalbatzako ordezkarien izendapena.

Idazkari jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, hemen lehen esan bezela, gauza bera egin beharko litzateke, berretsi beharko litzateke gai zerrendan sartzea. Gaia bozkatu aurretik.

“Al igual que en el punto anterior, en este caso también tendrá que ratificarse previamente la inclusión de este tema en el orden del día.”

Jarraian, Alkate jaunak, gaia presazko izaeraz gai zerrendan sartzeko proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

Indarrean dagoen Tokiko Korporazio eraientza juridikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduko 38 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Tolosako Eskualdeko Hiltegiaren Mankomunitateko estatutuetako 2.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udal bakoitzak Mankomunitatean izango dituen ordezkari kopurua biztanle kopuruaren arabera izango da, eta, horren ondorioz, Andoaingo Udalari 2 ordezkari titular eta 2 ordezkari dagozkie.

Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuetako 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udal bakoitzeko alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia izango da Asanbladan udalerriko bakoitzeko ordezkaria.

Gipuzkoako Ur Partzuergoko estatutuetako 14.2.a) artikuluan jasotzen denaren arabera, udalerrietako ordezkariak Alkateak edo honek eskuordetutako korporazioko kideak izango dira.

Beterri-Buruntza Mankomunitateko estatutuetako 7.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Asanblada Orokorra udal bakoitzeko Osoko Bilkurak aukeratutako bi ordezkarietaz osatuko da, eta horretarako plenoak bi titular eta bi ordezkari aukeratuko ditu.

Jarraian, Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Hirugarrenoko puntu honi dagokionez, hemen bertan, gure ordezkariak izendatuko ditugu eta proposamenak banan-banan bozkatuko ditugu. Ulertzen dut, ezta Idazkari jauna? “

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

“Hori nahi duzun bezala, berez akordioa bakarra da, baina, berez Alkateari dagokio erabakitzea nola bozkatuko den. Nahi baldin bada, osorik bozkatu, bozkatu daiteke, hori da normalena, baina nahi baldin bada, banan-bana ere egin daiteke.”

Berriro, Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esanez jarraitzeko:

“Nola nahi duzue? Nola nahi duzue? Osoa. Osoa egingo dugu. Orduan, irakurriko ditut orduan, izendapen ezberdinak eta gero bozkatuko dugu.

“Tolosaldeko Eskualdeko Hiltegiako Mankomunitatean Andoaingo udal ordezkarien izendapena. Lehenengo titularra, Alkatea, Andoni Alvarez Lete, bigarren titularra, Lehen alkateordea, Marta Lasa Goñi, lehenengo titularraren ordezkaria, Bigarren Alkateordea, Xabier Fondón Pajares eta bigarren titularraren ordezkaria, Hirugarren Alkateordea, Haizea Barandiaran, Zubillaga.

“Tolosalderako Mankomunitatean, Andoaingo Udaleko ordezkarien izendapena. Titularra, Alkatea, Andoni Alvarez Lete eta ordezkaria, Lehen Alkateordea, Marta Lasa Goñi.

“Gipuzkoako Ur Partzuergoan, Andoaingo Udaleko ordezkariak, Alkatea, Andoni Alvarez, eta lehen ordezkaria Marta Lasa Goñi.



Andoingo Udala

## Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2023/07/06

## Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 06/07/2023

“Azkenik, Beterri Buruntzako Mankomunitatean Andoingo Udaleko ordezkarien izendapena. Lehenengo titularra, Alkatea, Andoni Alvarez Lete, bigarrenengo titularra, Jose Maria Iparraguirre Balda zinegotzia. Lehenengo titularraren ordezkoa, Marta Lasa Goñi, eta bigarrenengo titularren ordezkoa, Xabier Fondón Pajares.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko heledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, aquí dos puntualizaciones. La primera es más que nada de orden, en cuanto al código, aparece 2019 en lugar de 2023, entonces, bueno, para que se tenga en cuenta, por si acaso, de cara a la documentación, porque, bueno, entiendo que es una errata sin más, pero bueno, por si acaso, para que se se tenga en cuenta. Y luego, bueno, con respecto a los nombramientos no tenemos ningún inconveniente, lógicamente, cada grupo decide cómo hacer. Eso sí nos ha sorprendido que anteriormente se achacara siempre que la Alcaldía figuraba en todos los sitios, y bueno, ahora vemos que también, con lo cual, bueno, pues entendemos que se haga así, aunque en su día se criticara. Eskerrik asko.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin honakoa erabaki du:

**Lehena:** Tolosako Eskualdeko Hiltegiko Mankomunitatean Andoingo Udaleko ordezkarien izendapena:

1. Titularra: Alkatea, Andoni Álvarez Lete jauna.
  2. Titularra: 1. Alkateordea, Marta Lasa Goñi andrea.
  1. titularraren ordezkoa: 2. Alkateordea, Xabier Fondón Pajares jauna.
- Suplente 1º Titular: El 2º Tte. Alcalde, D. Xabier Fondón Pajares.  
Suplente de 2º Titular: La 3ª Tte. Alcalde, Dª Haizea Barandiaran Zubillaga.

**Bigarrena:** Tolosaldeako Mankomunitatean Andoingo Udaleko ordezkariaren izendapena:

Titularra: Alkatea, Andoni Álvarez Lete jauna.  
Ordezkoa: 1. Alkateordea, Marta Lasa Goñi andrea.

**Hirugarrena:** Gipuzkoako Ur Partzuergoan Andoingo Udaleko ordezkariaren izendapena:

Titularra: Alkatea, Andoni Álvarez Lete jauna.  
Ordezkoa: 1. Alkateordea, Marta Lasa Goñi andrea.

**Laugarrena:** Beterri-Buruntzako Mankomunitatean Andoingo Udaleko ordezkarien izendapena:

1. Titularra: Alkatea, Andoni Álvarez Lete jauna.
2. Titularra: Zinegotzia, José Mª Iparraguirre Balda jauna.
1. titularraren ordezkoa: 1. Alkateordea, Marta Lasa Goñi andrea.
2. titularraren ordezkoa: 2. Alkateordea, Xabier Fondón Pajares jauna.

**Bosgarrena:** Erabaki honen berri ematea interesdunei eta Tolosako Eskualdeko Hiltegiko Mankomunitateari, Tolosaldeako Mankomunitateari, Gipuzkoako Ur Partzuergoari eta Beterri-Buruntza Mankomunitateari.

**Seigarrena:** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratu.

#### 4. 2023ko ekainaren 22ko 1350/2023 zenbakiko ebazpenaren berri ematea, zeinaren bidez udal batzorde informatzaileen lehendakaritza utzi eta lehendakariak izendatzen diren.

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Jarraian zerrendatuko ditut sail bakoitzeko batzordeburuak izango direnak.

“Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza, Xabier Fondón Pajares.

“Zerbitzuetan, Xabier Fondón Pajares,

“Euskararen Normalkuntza Batzordean eta Hezkuntza eta Kulturaren, Marta Lasa Goñi,

“Gizarte Zerbitzuetan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunean. Haizea Barandiaran Zubillaga

“Hirigintza, Obra eta Ingurumen Landa Gunean, Garazi Usandizaga Zubiria,

“Ogasuneko Batzordean, Enpleguko Batzordean eta Kiroletako Batzordean, ni neu, Andoni Alvarez,



Andoingo Udala

## Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2023/07/06

## Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 06/07/2023

Alkatea, izango naiz batzordeburua.

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Lainez andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, en cuanto a la organización, entendemos que sea así, lo único, que bueno, sí queremos solicitar que, lo antes posible se vaya revisando un poco la organización que se tiene en el ayuntamiento, porque entendemos que poco a poco hay que ir tendiendo hacia una organización mucho más transversal y que tenga menos departamentos y más áreas, que sean un poco en las que incluyan a los diferentes departamentos, que es lo que se estaba trabajando al final de la legislatura, y bueno, esperamos que más pronto que tarde, tengamos una organización, como hemos dicho, más transversal. Eskerrik asko.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Bai, hori da gure helburua ere, eta bueno, pozten gaitu alderdi ezberdinak norabide berdinean joatea, zeren errazago lortuko dugu udalak hain beharrezkoa duen berrantolaketa hori egitea.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

### **5. 2023ko ekainaren 22ko 1354/2023 zenbakiko ebazpenaren berri ematea, non Toki Gobernu Batzarreko kideak eta Alkateordeak izendatzen diren.**

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai. Alkateorde izendapenei dagokienez, Lehenengo Alkateordea Marta Lasa Goñi da. Bigarrenengo Alkateordea, Xabier Fondón Pajares, eta Hirugarrenengo Alkateordea, Haizea Barandiaran Zubillaga.

“Tokiko Gobernu berriz, horrela dago osatuta. Marta Lasa Goñi, Xabier Fondón Pajares, Haizea Barandiaran Zubillagak, Joxe Maria Iparragirre Baldak eta nik neuk.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

### **6.- 2023ko ekainaren 23ko 1353/2023 zenbakiko ebazpenaren berri ematean, zeinaren bidez Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetzak eskuordetzen diren.**

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Ebazpen honetan jasotzen dira Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetzen diren eskuordetzak.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

### **7.- Behin-Behineko langileen izendapenaren berri ematea.**

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Dakizuen bezala, Alkateak izaten duen konfiantzazko lankide bat izendatzen da. Alkatearen idazkaria esaten dena, eta gure idazkaria edo alkatearen idazkaria Ainara Rodríguez Zalakain izango da.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi Lainez andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Aipatzea pozten garelako Ainara berriro gurekin izatea eta ongietorria ematen diogu, nahiz eta gaur gurekin ez egon, baina bueno, berari esan genion bezala, ba pozten garelako berriro gure artean egotea. Eskerrik asko.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

Berriro, Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Besterik gabe, esan dugun bezala, gaur ezohiko udalbatza zen, eraketakoa.

“Beharrezkoa genuen, nolabait esan, udal batzuekin eta hainbat sailekin eta batzordeekin lanean hasteko.

“Eskerrik asko, lehen esan dudana bezala, etorri zareten zinegotziei eta baita ere zuen etxeetatik udalbatza hau jarraitu duzueni mila esker.”



Andoaingo Udala

**Akta:Osoko Udalbatza**  
APARTEKO BILKURA: 2023/07/06

**Acta: Pleno Municipal**  
SESIÓN EXTRAORDINARIA: 06/07/2023

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzaraldia, 19.20 minutu zirenean. Idazkariak batzaraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.  
Alkatea,

**Alkatea / El Alcalde**

**Idazkaria / El Secretario**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU0c5e7b59-da93-4724-b3fc-918cefd59318**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>